

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gregori Markaide Pildain

*Arrasate
Gipuzkoa (1921)*

Aurkibidea



Biografia



Uribarri auzoko Olanbarri baserrian (gaur galduta) jaio zen 1921ean. Aita Olanbarrikoa bertakoa zuen eta ama Udala auzoko Erregena baserrikoa. Sei anai-arreba ziren, bera gazteena. Aita baserri-arotza zen. Gerran ama tiroz hil zuten baserriko atean. Eskolan oso denbora gutxi ibili zen. Arrasateko Arbolapetako "Gantxegixena" tabernan (Bar Canuto) egon zen neskame. Goizetik etxeko lanak egiten zituen, horrela arratsaldean eskolara joan ahal izateko. Geroago Eibarren, Arrateko San Martin baserrian, egon zen neskame urtebetez, 1000 errealen truke. Bedoña auzoko Artia baserrira ezkondu zen, Pio Garairekin, eta lau seme izan zituzten. Bere amarekin hasi zen "plaza-andra" lanak eta arteak ikasten eta 73 urtean dihardu baserriko gaiak Arrasateko plazan saltzen.

Zintak

ARR-069

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-06-16
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

ARR-118

- **Proiektua:** Arrasate Press
- **Elkarrizketatzailea(k):** Garai, Jesus Mari - Plazaola Otadui, Estepan
- **Data:**
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Plazaola Otadui, Estepan

Pasarteak

1. 1921an jaioa Uribarriko Olanbarri baserrian

- **Erref:** ARR-069/001
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:04

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Uribarri auzoko Olanbarri baserrian jaio zen 1921eko martxoaren 12an. Aita bertakoa zuen eta ama Udala auzoko Erregena etxekoa.

2. Eskolan mojak; dotrinan abadeak

- **Erref:** ARR-069/003
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:01:45. **Bukatu:** 00:03:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Sei anai-arrebatatik gazteena da Gregori. Eskolara, mojetara, joan zenean ia erdaraz bazekien galdetu zien eta berak erantzun zien bakarrik "si"eta "no" zekiela. dotrina abadeekin ikasi zuten. Abadearen ortua-eta garbitu behar izaten zuten. Abadeari gorrotoa hartu ziola dio.</p>

3. Arrasatera eskolarako eta edozertarako

- **Erref:** ARR-069/006
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:04:09. **Bukatu:** 00:05:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Mojetan ez zuten ikasmahairik-eta izaten harmailetan esertzen ziren. Arrasateko ospitalean zegoen orduko eskola. Denetarako joaten ziren Arrasatera. Lagunak ere bertan zituen, ez auzoan.

4. Neskame Bar Canuton

- **Erref:** ARR-069/007
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:05:35. **Bukatu:** 00:06:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Neskame egon zen Bar Canutoko etxean, eta gero arratsaldezkola joaten zen. Ama gazte zela hil zenez bera eta ahizpa neskame aritu ziren.

5. Gerran umezurtz

- **Erref:** ARR-069/009
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:07:03. **Bukatu:** 00:08:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Ama gerra sasoiari hil zitzaion etxeko atarian zegoela balaz zauritua. Gerrako umezurtza da Gregori. Neba-arrebak gerrako soldadu, neskame, morroi... aritu ziren, hala ere baserria aurrera atera zuten denen artean. Ganadua eta astoa zuten.</p>

Transkripzioa

- Ia, ia, ia. Ta zela galdu zebein, ba, ama?
- E?
- Ama zela galdu zebein?
- Ama, etxeko atien ganauei ure erateko jarein, ure be falta, gerra denporie zan ta, soldauek ezen gure etxien. Ni ez nenguen etxien, orduen Kanutonien orduen nenguen, eta ure erateko jarein eutsenien kanpora urten biherko eben, [ostera in biherko eben], ta bala bateaz, garbi. "Con arma de fuego", neuk dauket papelak. Neuri tokau jaten, "huérfana, huérfana, huérfana de guerra" neu naz.
- Kontxo!
- Eta neuri tokau jaten baiña, kitto. Anaiek, bat eongo zan soldau ta beste bat eongo zan Araban krieu ta holaxe danok, sakabandute.
- Ia, ia, ia.
- Basarrixa ipintten geben, ibiltten geben, apur bat ibiltten geben danon artien edo. Guk apur bat ortue ta...
- Zela, zenbat ganau zeukein?
- Ganauek?
- Zenbat ganau euki zebein?
- Hiru edo [...] eukitten gittuen.
- Ardirik?
- Ez, ez, astue, gero noizbaitten astue. Bestela danak buruen edo...

6. Arrasatera esnea oinez eramaten zuten; amak sorkian

- **Erref:** ARR-069/010
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:08:08. **Bukatu:** 00:09:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Astoa izan aurretik eskuan eramaten zuen esnea Arrasatera. Etxetik Arrasaterako bidea zein zen azaltzen du. Amak buru gainean eramaten zuen sorkian. Berak ez zuen ikasi sorkia erabiltzen.</p>

Transkripzioa

- Ardirik?
- Ez, ez, astue, gero noizbaitten astue. Bestela danak buruen edo eskuen Mondrauera. Akordetan naz Maitenetik behera, Maitena badakitzu nun zan?
- E...
- Udalara bidien.
- Bai.
- Maitena eta handik behera euen harrizko bidie, handik urteten euen

Kanpazarko bidera.

- Bai, bai, bai.

- Mari Kurtzena edo... Eta betik marmittak erun biher ta betik harrixe joten, tau! tau! bestien. Zenbat karga eruango auen, ba, hamabost urteko umiek?

- Bai, bai. Ta oindiok ez eukein astoik, e?

- E?

- Astoik ez eukein oindiok, e?

- Ez, ez, artien ez euen astoik, astoik be. Ta amak eruten eben buruen, amak berak erun biher euenien, sorkixe esaten gutsen.

- Sorkixa?

- Sorkixe, holako erredondo bat.

- Bai, buru gaiñien ibilttekua.

- Buruen [ibiltten], ha ipintten eben eta eskuek, eskuek poltsikuen [iguel] ibiltten zittuen edo tokilla barruen edo nunbaitten.

- Ba bai, ia ikasitta euen.

- Ikisitte, hoixe.

- Ta zuk ez zeben ikasi sorkixoi ipintten?

- Ez, sorkixen ez. Ene... ezebez, ikesi ezebez edo ez dakit nik. Bizimoduek beraxek erakutsi gau. Nezesidadiek erakusten dittu makiña bat gauza ta...

- Eta zuk zer, gerra denporan ama galdu zebenien...

7. Aita arotz lanetan

- **Erref:** ARR-069/011
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:09:20. **Bukatu:** 00:11:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Ama hil zenean, nebak soldadu eta morroi egon ziren. Aita ez zen beraietaz arduratzen, etxean gizon bat gehiago zen. Pertsona ona zen baina ez zuen ardurarik hartzen. Arotz lanetan aritzen zen. Herriko beste arotz batzuei laguntzen aritzen zen, arotz horiek aipatzen ditu. Dirua lortzeko beti lanean aritu da, umetatik.

8. Hamabots urtetatik plazara

- **Erref:** ARR-069/012
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:11:03. **Bukatu:** 00:12:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

Hamabost urterekin hasi zen plazara joaten eta gaur egun oraindik jarraitzen du. Hasi zenean erosle erdaldun asko zegoela dio, euskaldunak gero hasi zirela.

9. Baserriko lanak

- **Erref:** ARR-069/015
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:13:57. **Bukatu:** 00:15:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserrian beti zegoen lana, lur guztian lantzen ziren. Baserrian egiten zituzten lanak aipatzen ditu. Mutilek eta neskek askotan zeregin ezberdinak zituzten.

10. Plazako kontuak

- **Erref:** ARR-069/017
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:16:47. **Bukatu:** 00:18:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Gerra aurretik babak, ilarrak eta esnea eramaten zuten plazara. Bezero finkoak zituzten. Orduan ere askotan, azkarren zebilenak saltzen zuen gehien. Plazako diruarekin etxerako gauzak erosten zituzten: olioia, azukrea, kafea...

11. Jatorduak

- **Erref:** ARR-069/019
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:19:40. **Bukatu:** 00:20:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Letxuga azukrearekin eta ozpinarekin jatea gustatzen zaio, lehen ere horrela jaten zuten eta. Domeketan garbantzuak eta zopa jaten zuten. Gehien baba, urdaia jaten zuten.

12. Gaztainak; Markuleteko errota

- **Erref:** ARR-069/021
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:21:30. **Bukatu:** 00:23:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Gaztaina oskol eta guzti gordetzen zen behar zenerako. Askotan egosita jaten zituzten. Kanpoan zaku batekin edo egurrekin tapatuta izaten zituzten. Beraiek ez zuten artorik baina Markuletek bai, Uribarriko errota eta okindegia zenak. Haiek zaldian ekartzen zieten etxera irina eginda.</p>

Transkripzioa

- Eta gero gaztaiñak eta jaten zindduein?
- Bai, honbre!
- Hor udazken partien ta gaztaiñak, ezta?
- Honbre! Gorde itten zan gaztaiñie gordeten zan, koskol ta guzti gordeten zan pilluen eta biher dozunien eskuera bateaz jo bat, apur bat emoten otsezun eta etara ta bestie gorde, han.
- Eta danboliñien, danboliñien edo egositta?
- Ez, ez, bere pintxo ta guzti! Lurrien.
- Baiña ta jan?
- Jan?
- Jan egositta edo erreta?
- Jan egositte askotan, egositte askotan. Ha, ha eoten zan betik kanpuen gaztaiñie. Tapau zakuen bateaz edo egurren bateaz edo egur batzukin ta tapaute freskuran. Ta han hartu eta egunero.
- Ia.
- Egunero edo biher gabenien behintzet ta nik ez dakit ba, orduen zera ibiltten zan [...] esnie eta ogixe.
- Eta artua ta talua ta?
- Ba, artue ez geben guk itten ta artue itten euen a zan Markulete. Markulete zuk ez dozu esistidu?
- Ez.
- Hori zan errotie, panaderixa edo errota, dana itten eben, Markulete. Oin ez dao.
- Nun euen errota hori?
- Hori, hori Uriberrin, Garagartzara bidien.
- A! Uriberrin bertan?
- Oin edifizieuk eta... Mendittibarri onduen.
- Ia, ia, ia, ia.
- Eta haik zaldixen ekarten euen etxera, erun be bai, ta ixo eta urune eindde ekarten euen etxera. Bai.
- Baiña zuk esan dozu garixa gerra aurretik euki zebeilla baiña ia gerran...
- Ez, gerra denporan ez naz akordetan. Horixe be ez naz akordetan.
- Eta gerra ostien ia ez dozue garirik euki?
- Eske ez naz akordetan hoixeaz be. Ez geben eukiko, ez dot pentsetan.

13. Errazionamendu libreta eta errotariak

- **Erref:** ARR-069/023
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:23:58. **Bukatu:** 00:27:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Errazionamendu libreta erakusten du. Hor errotariak hartutako kopurua apuntatzen zuen, ezin zizutelako harrapatu libretan agertzen zen kopuruarekin baino gehiagorekin. Uribarriko Markulete errotako Basilio eta Arrasateko errotako Teresa eta Periko aipatzen ditu.

14. Morteroa Arrasateko okindegian

- **Erref:** ARR-069/024
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:27:05. **Bukatu:** 00:28:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Udalan frontea zegoen eta Olanen ematen zitzairen soldaduei jaten. Arrasateko okindegian mortero bat bota zuten eta bere ahizpak handik alde egin zuen Arrasatera.

15. Ama non lurperatu zuten jakin barik

- **Erref:** ARR-069/025
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:28:46. **Bukatu:** 00:31:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Ama zauritu zenean, lehenengo abadeari abisatu behar zitzaiola esaten zuen Gregoriren ahizpak. Osatuko zela esan zieten arren, Bergarara eraman zuten eta bertan hil zen odolustuta. Ez dute sekula jakin non lurperatu zuten amaren gorpua.

16. Izara bidez komunikatzen

- **Erref:** ARR-069/028
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:36:17. **Bukatu:** 00:37:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Gerra amaitu ostean etxean gelditu zen. Lagunekin jaietara joateko gelditzeko, izara baten bidez komunikatzen ziren. Izara jarriz gero joango zelan esan nahi zuen.</p>

Transkripzioa

- Eta ia behin gerria akabauta, etxien ia ze basarritar, basarritar petua ia?
- Bai. Handik be, ba, plazara faten nitzen ta etxeko lanak ein ta etxeko, [...] lagunek be banauken ta lagunekin fiesta zanian gure telefonue badakitzu ze zan? Haik ipintten eben, ona edo txarra, ipintten ze ben ixera bat, denporie be ona in biheko eben, edo bazoiez, zuk bazekixen ipinitte euena

edo ez euen. Zuk be hola in bihe zeben. [...]

- Izaria ifintten bazeben...

- Bai, ixerie.

- Fango ziñan eta bestela ez.

- Bai. Ba, fateko ordue ipinitte zeuken. Fan biher bada, han eongo zan.

- Ia eta nora juateko ohitturia zeukotzuein?

- Ba, Ziorlara San Isidruetan ta, holakotxe gauzatxuek, gauzatxo batzuk.

- Bai, bai. Eta hamen San Juanetan ta?

- Ba, bueno, bai.

17. Eskolan erdaraz

- **Erref:** ARR-069/030
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:37:57. **Bukatu:** 00:38:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Eskolan erdaraz ikasi zuen. Denak pilatuta egoten ziren. Sor Maria Jacinta aipatzen du. Ez zutela askorik ikasi dio.

18. Senarra ganadu-azoka zalea

- **Erref:** ARR-069/034
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:43:55. **Bukatu:** 00:45:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Bere senarrari azoketara joaten gustatzen zitzaion. Azoketan zer jaten zuten azaltzen du. Behiak eta txahalak saltzen zituen. Saltzen ez zuten esnea gazta edo gurina egiteko erabiltzen zuten.

19. Arrasateko okindegiko panpota

- **Erref:** ARR-069/040
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:50:00. **Bukatu:** 00:51:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Arrasateko okindegian ogi pila bat egiten zuten. Panpota egiten zuten: ogi txiki errea. Txokolatearekin-eta jaten zen ogia. Okindegian aritu zen sasoi batean lanean, hala ere ez zen ausartzen ogi pusketarik hartzera nahiz eta goseak egon.

20. Matxakito Uribarriko abadea

- **Erref:** ARR-069/045
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:56:37. **Bukatu:** 00:57:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Uribarriko elizara joateko egiten zuten bidea kontatzen du. Matxakito deitzen zioten abadeari.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com